

# EREMULAK

## JARDUERA ARTISTIKORA ZUZENDUTAKO LAGUNTZAK

# JARDUERA ARTISTIKORA ZUZENDUTAKO LAGUNTZAK

## SARRERA

Euskal testuinguru artistikoaren behatoki gisa, eta arte-lanari datzekion prozesualitatea bultzatu eta babesteko hautemandako beharrari erantzuteko, Eusko Jaurlaritzako Kultur Saileko Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak jarduera artistikora zuzendutako bi laguntza emateko deialdia abiarazi du, **eremuak** programaren bidez (hemendik aurrera, **eremuak**), gaur egun, GUATA, Zallako Zentro artistikoak kudeatzen duena.

Artisten egitekoarekiko konfiantzatik abiatuta, deialdi honen bidez lagundu nahi da aurretik zehaztutako proiektuen menpekotasunetik askatzeko lan-denbora bat sortzen, oro har, sorkuntza-prozesutik ez datozen errekerimendu guztietatik bestelakoa. Halaber, **eremuak**ek elkarrizketa ezarri nahi du onuradunekin, bi aldeentzako aberasgarria izan dadin, eta publikoan eragina izan dezan, **eremuak**en beraren kanalen bidez (webgunea, sare sozialak, jardueren aurkezpenak eta argitalpenak).

Gure ustez, **eremuak**en deialdi jarraituarekiko eta horren espezifikotasunekiko paraleloan, laguntza berri hauek Euskal Autonomia Erkidegoan (hemendik aurrera, EAE) jarduera artistikoa babesteko sistemaren sarean artatu gabe zegoen hutsune bat betetzeko balioko dute.

Testuinguru horretan egin da jarduera artistikora zuzendutako laguntzen deialdia, oinarri hauen arabera:

## ONARRIAK

### 1- XEDEA

- Oinarri hauen xedea da **eremuak**ek deialdia egitea **jarduera artistikora zuzendutako bi laguntza** emateko. Horien bidez, laguntzen iraunaldian zehar eskatzaileek beren asmo- adierazpenean zehaztutako behar espezifikoak estali nahi dira, beren obra garatzeko denbora izan dezaten laguntzeko.
- Laguntza hori jasotzea bateraezina da kontzeptu bererako beste edozein erakunde- laguntza jasotzearekin, eta behin bakarrik eskuratu ahal izango da. Bateraezina da, halaber, urte berean indarrean dauden **eremuak**en bestelako deialdiekin.

### 2- ONURADUNAK

- Laguntza eskatu ahaliko dute jarduera artistikoko lanak egin nahi dituzten eta oinarri hauetan jasotako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko eta juridiko guztiek.
- Laguntzak emango zaizkie EAEko udalerriren batean egoitza fiskala duten pertsonen.
- Oro har, alde bakoitzak hari dagozkion zergak bere gain hartu beharko ditu, Espainiako indarreko araudiarekin bat.

### 3- IRAUPENA

- Laguntzak **zortzi hilabetez** iraungo du, eta ezingo da luzapenik eman.

### 4- HORNIDURA

- Laguntza bakoitzaren zenbatekoa **9.000 eurokoa**, izango da.
- Zenbateko horri, bidezkoa bada, dagokion atxikipena egingo zaio.
- Zenbateko horrek barne hartzen ditu bidaiak, ostatua, mantenua, estudio bat alokatzea, materialak, liburuak eta abar erostea, eta, oro har, onuradunak bere jardunerako egokitzat jotzen duen beste edozein jarduera gauzatzeko erabili ahal izango da.
- Diru laguntza faktura aurkeztuz ordainketa baten bidez ordainduko da, adjudikaziodun bakoitzak epaimahaiaren ebazpena ofizialki onartzen duenean.

### 5- BALDINTZAK

- Laguntzak ondoreak izango ditu emakidatik aurrera, hitzartutako aldian zehar eta etenik gabe.
- Laguntza behin betiko esleitutakotzat joko da **eremuak**ek, laguntzaren emakidaren ebazpena jakinarazi ondoren, horri buruzko jasotze-agiria jasotzen duenean, eskatzaileak laguntza onartu duela adieraziz.

### 6- ONURADUNEN KONPROMISOAK

- Onuradunek, beren lana garatu bitartean eta aldi oro, oinarri hauen atal guztietako arauak beteko dituzte.
- Laguntzaren xede den asmo-adierazpena gauzatu dute, ezarritako epean, eta lana aurkeztutako memoriarekin bat etorriko da; era berean, ezingo dute eragozpen gisa alegatu aurreko edo ondoko bestelako konpromisorik.
- eremuak**ek eskatutako jarraipen-saiotara joango dira, laguntzak iraun bitartean,

elkarrizketa ezartzeko Batzorde Teknikoaren (BT) eta onuradunaren artean; izan ere, hori da deialdi honen ezaugarrietako bat. Horretarako, estudiorako bisitak edo topaketak aurreikusten dira onuradunaren eta **eremuakeko** BTaren artean.

- Onuradunak memoria bat bidali beharko dio **eremuaki**, laguntza bukatu eta hurrengo hilabetean (gehienez ere 2026ko abenduak 15). Bertan, eskaeran jasotako asmo- adierazpenaren arabera, amaierako ebaluazio bat egin beharko da aurkikuntzei, emaitzei eta laguntzari ateratako etekinari buruz. Horrekin batera, eginiko obren dokumentazio grafikoa edo sortutako lan-materiala, halakorik balego, aurkeztu beharko da. Hori jasotakoan, bukatutzat joko da laguntzaren xede den jarduera artistikoa.
- **eremuakek** eskatzen dion material grafikoa edo testuala aurkeztu beharko du, komunikazio- eta hedapen-sistemetan sartzeko, eta eginiko lana jendaurrean aurkezteko parte-hartze errekerimenduei men egin beharko die.
- **eremuakek** abiarazitako jarduera artistikora zuzendutako laguntza haren iraunaldian zehar sortzen diren dokumentu guztietan aipatu beharko da.
- Laguntzaren ondorioz argitalpenen bat egiteko aukera sortuko balitz, **eremuaken** lankidetzaren tartean dela jaso beharko da.

## 7- ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

**eremuak**-eko Batzorde Teknikoak osaturiko epaimahiak aztertuko ditu jasotako eskaerak.

**eremuakek** eskubidea izango du dokumentazio osagarria eskatzeko edo hautagaiekin elkarrizketa pertsonal bat egiteko, beharrezkotzat jotzen duenean.

Eskabidea helbide honetan egin beharko da: <https://eremuak.eus/praktika-artistikorako-laguntzak/> hiru dokumentu bidalita, banaka, eta konprimitu gabe.

Honako hiru dokumentu hauek sartu behar dira, eta oinarri hauetan zehazten den moduan bidali behar dira:

1. **Dokumentua:** Eskatzaile guztien **zerga-egoitzaren ziurtagiria**, Zerga Administrazio eskudunak emana, **pdf formatuan**. Artxibo horren izenburua eskatzailearen lehen **abizenak** eta haren **ponte-izena** gehi **residenciafiscal** hitzak osatuko dute, **punturik, komarik edo tarterik sartu gabe**. Adibidea: **etxeberriaaneresidenciafiscal.pdf**
2. Dokumentua: Dosierra, informazio honekin:
  - **Datu pertsonalak eta harremanetarako datuak.** Ezinbestekoa da helbide elektronikoa eta harremanetan jartzeko telefonoa adieraztea.
  - Eskatzaile guztien **NANa, pasaportearen edo egiaztapen-dokumentua.**

- **Parte-hartzaileen zinpeko aitortpena** (lagun bat baino gehiago parte hartuz gero bakarrik), deialdi honen ondorio guztietarako ordezkari gisa jardungo duen pertsona fisikoa izendatuz.
- **Curriculuma, egindako ikasketak, jarduera profesionalak, erakusketak, sariak, bekak eta abar adierazita.**
- **Artistaren lanaren dokumentazio grafikoa, testuala, ikus-entzunezko lanen estekak eta abar biltzen dituen artxibo bakarreko dosierra**
  - Duela gutxi egindako proiektuen **10 irudi gehienez**, horietako bakoitzaren fitxa teknikoa eta deskribapen laburra barne.
  - Beren lanean ikus-entzunezko baliabideak erabiltzen dituzten sortzaileek **gehienez 5 esteka** erantsi ahal izango dituzte, horiek ikusi ahal izateko (webguneak, blogak, vimeoa, youtubea). Epaimahaiak minutu bateko zatiak bistaratuko ditu; beraz, **ikusarazi nahi den zatia zehaztea** gomendatzen da.

**Dosierra** pdf edo Word formatuan bidal daiteke Artxibo honen izenburuan eskatzailearen **lehen abizena** eta **ponte-izena** eta **dosier** hitza agertuko dira, **punturik, komarik edo tarterik sartu gabe**.

Adibidea: etxeberriaanedosier.pdf edo etxeberriaanedosier.docx

3. **Dokumentua: Motibazio-eskutitza** edo asmoen adierazpena, behar bezala arrazoituta. Gehienez ere 1.800 karakterekoa zuriunerik gabe (350 hitz inguru). Pdf edo Word dokumentua izan daiteke. Artxibo honen izenburuan eskatzailearen **lehen abizena** eta **ponte-izena** eta **carta** hitza agertuko dira, **punturik, komarik edo tarterik sartu gabe**. Adibidea: **etxeberriaanecarta.pdf** edo **etxeberriaanecarta.docx**

## 8- HAUTAKETA

- **eremuakeko** BT ko (Batzorde Tekniko) kideek osatutako epaimahaiak egingo du hautaketa, eta, egoki baderitzote, hautagaiak deitu ahal izango dituzte beharrezkoa den edozein argibide emateko edo elkarrizketa pertsonalak egiteko. Epaiak apelaezina izango da.
- Deialdia ebazteko, honako balorazio-irizpide hauek hartuko dira kontuan:
  - Eskatzaileen alde aurreko obraren edo lanaren interesa eta potentzialtasuna, bai eta haien karrera zein unetan dagoen ere.
  - Praktika pertsonal bat garatzeko konpromiso-maila, curriculumaren, obra-dosierren eta motibazio-gutunaren edo asmo-adierazpenaren bidez egiaztatua.
  - Praktika motak testuingurua aberasteko egiten duen ekarpena.
- Eskabideak baloratu ondoren, **eremuakek**

dirulaguntza emateko ebazpena emango du, eta deialdian eskatzaileei jakinaraziko zaie.

- **eremuak**ek beretzat gordetzen du deialdia hutsik deklaratzeko aukera, baldin eta ulertzen badu hautagaietako batek ere ez dituela betetzen aurreko puntuan deskribatutako gutxieneko interes-baldintzak.

## 9- EPEAK

- Eskaerak **aurkezteko epea martxoaren 9an** (astelehena) **hasiko da**, eta 2026ko **martxoaren 31ean** (asteartea) **amaituko da**.
- Erabakia **2026ko apirilaren lehen hamabostaldian**, jakinaraziko da, **eremuak**en webgunearen eta sare sozialen bidez.
- Bekaldia: **apirilaren 15etik azaroak 15ra**.

## 10- JABETZA INTELEKTUALA

- Eskatzaile eta hautatutako onuradun guztiek bermatuko dute **eremuaki** emandako dokumentazio grafikoa, testuala eta ikus-entzunezkoak originalak izango direla eta ez dituztela hirugarrenen jabetza intelektualeko eskubideak urratzen honako kasu hauetan:

(i) eskaeraren testuinguruan eta, hala badagokio, (ii) proiektuaren exekuzioan zehar, oinarri hauen xede den laguntzarekin batera. Ondorioz, **eremuak**en eta haren hirugarren laguntzaileen aurrean erantzungo dute material horien inguruan hirugarrenek jabetza intelektualari buruz egin ditzaketen erreklamazio guztien aurrean, eta erakunde horiei kalte-ordainak eman beharko dizkiete, kontzeptu horiei buruzko erreklamazioen ondorioz sor daitezkeen kalte eta galera guztiengatik.

- Oinarri hauek onartzean, onuradunek baimena ematen diote **eremuaki**, edozein euskarritan, hari ematen dioten dokumentazio grafikoa, testuala eta ikus-entzunezkoa erabiltzeko, oinarri hauen xede diren laguntzak hedatzeko eta laguntza horiekin hornitutako proiektua exekutatzeko xede bakarrekin.
- Aurreko guztiak ez die kalterik egingo aipatutako dokumentazio grafiko, testual eta ikus-entzunezkoaren gaineko egile-eskubide moralei eta jabetza intelektualaren ondare- edukiaren eskubide guztien titulartasunari. Azken horiek onuradunei dagozkie aurrerantzean ere.

## 11- DATU PERTSONALEN BABESA

- Eskatzaileei jakinarazten zaie oinarri hauek onartzearekin batera baimena ematen diotela **eremuaki** eskaeraren aurkezpenaren unean eta oinarri hauen xede den laguntzarekin hornitutako proiektuaren exekuzioan emandako datu pertsonalak tratatzeko, baldin eta hautatuak

izaten badira. Tratamendu horren xedea izango da eskaera izapidetu eta kudeatzea, baita esleitzen diren laguntzak baliatzea eta laguntza horiekin hornitutako proiektua hedatzea ere.

- Aipatutako datu pertsonalak erakunde eta organismo publikoei jakinaraziko zaizkie, baldin eta horretarako betebeharrak legala baldin badago. Halaber, eta 12. klausulan xedatutakoari jarraikiz, laguntzen onuradunen izena eta irudia hirugarrenei jakinarazi ahalko zaizkie jakinarazpen-sistemen bidez, edozein euskarritan, **eremuak**ek oinarri hauen xede diren laguntzak hedatzeko eta haiekin hornitutako proiektuaren exekuziorako erabiliko baititu.
- Testuinguru horretan, nabarmentzen da datu pertsonal horiek aurkeztea beharrezkoa dela; izan ere, datu horiek ez badira aurkezten, laguntza-eskaera eta deialdiko parte-hartzea ezingo dira kontuan hartu.
- Eskatzaileen datu pertsonalak hautagaitza baloratzeko beharrezkoa den denbora-epean zehar gordeko dira, eta, hala badagokio, laguntzen esleipena eta erabilera kudeatzeko. Horrez gain, kontuan hartuko da **eremuak**en betebeharrak legalak betetzeko beharrezko kontserbazio-denbora gehigarria.
- Edonola ere, eskatzaileei eta onuradunei jakinarazten zaie honako eskubide hauek dituztela: (i) euren datu pertsonalak atzitzeko eskubidea, datuak zuzendu edo ezabatzeko eskubidea, tratamendua mugatzeko eskubidea, datuen eramangarritasuna eskatzeko eskubidea eta tratamenduari uko egiteko eskubidea, [komunikazioa@eremuak.eus](mailto:komunikazioa@eremuak.eus) helbide elektronikora zuzendutako idatzizko eskaera baten bidez; (ii) Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren edo beste edozein kontrol-agintaritzaren eskudunen aurrean erreklamazio bat aurkezteko eskubidea, bereziki eskubideen erabilerarekin ados ez egotekotan.

## 12- IRUDI-ESKUBIDEAK

Oinarri hauek onartzearekin batera, hautatuak izango diren onuradunek baimena ematen diote eremuaki honako hauetarako: (i) baliabide tekniko egokien bidez haien irudia erregistratzeko (argazkiak, bideoak, etab.); (ii) irudi horiek eta izena eremuak webgunean eta beste edozein euskarritan, bai fisikoa eta bai elektronikoa, erabili eta erreproduzitzeko, bere kontrolpean edo hirugarren laguntzaileen kontrolpean. Horren xede bakarra izango da oinarri hauen xede diren laguntzak hedatzea eta haiekin hornitutako proiektua exekutatzeko. Baimen horrek izaera ezetzagarria du.

\* eremuak txandakako [Batzorde Tekniko](#) baten bidez egituratzen da, sektoreko artista eta eragile independenteek osatua. Batzordea da eremuak-en erabaki-organo nagusia, eta berak diseinatzen du programa, haren ekintzak zuzendu eta gauzatu.